



## HITZAURREA

Errealitatearen eta indarrean dagoen legediaren arabera, .... udalerriko berezko hizkuntza euskara da. Ordenantza honen helburua da, batetik, ..... udalerrian egoera soziolinguistikoan eragina izan dezaketen planak eta proiektuak egiteko eta onartzeko prozeduretan, eta haiei baimena edo gaikuntza emateko prozeduretan, hizkuntza alderdiak eta euskararen erabileraren normalizazioa gehitzea. Bestetik, euskararen erabilera normalizatzeko onuragarrienak diren aukerak aztertzea eta kontuan hartzea, eta ondorioz, neurriak diseinatzea, euskararen erabileraren normalizazioaren gaineko ondorio kaltegarriak prebenitzeko, zuzentzeko eta, hala dagokionean, konpentsatzeko.

Autonomia Estatutuaren 6. artikuluari jarraiki, eta hizkuntza alorrean garatzen duen legediari ere —funtsean 10/1982 Legea, azaroaren 24koa—, Euskal Autonomia Erkidegoko berezko hizkuntza euskara da. Euskadiko Toki Erakundeei buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legearen 7. artikuluko 7. atalak honakoa xedatzen du: «Udal euskaldunetako egoera soziolinguistikoan eragina izan dezaketen proiektu edo plangintzak onesteko prozeduran, ekimen horiek euskararen erabileraren normalizazioari dagokionez izan lezaketen inpaktua ebaluatuko da, eta ebaluazio horren emaitzen arabera egoki irizten zaizkien neurriak proposatuko dira.».

Besteak beste, aipaturiko artikuluko hori garatzen duen 179/2019 Dekretuak, azaroaren 19koa, Euskadiko toki-erakundeetan hizkuntza ofizialen erabilera instituzionala eta administratiboa normalizatzeari buruzkoak, zioen azalpenean, argi adierazten du hizkuntza-inpaktuaren ebaluazioak izaera



irekia daukala eta izaera hori arrazoizkoa dela, bai administrazio-jardueraren sinplifikazio-printzipioaren ikuspegitik bai hizkuntza politikako tresna gisa izan behar duen efikaziagatik. Ondoren zehazten du: «... gai honetan ere udal bakoitzari tarte zabala ematen zaio, hizkuntza-normalizazioaren arloko erantzukizuna hoberen irizten dion moduan gauzatu dezan, baina beti gutxieneko irizpide batzuk betez. Hizkuntza-inpaktuaren ebaluazioak udalei aukera aski handia ematen die egoera malgutasunez aztertu eta baloratzeko, halako eran non sistema malgu bat eskaintzen bazaie udalei, planifikatzeko eta programatzeko garaian hizkuntza-inpaktuaren ebaluazioaren abantailez balia daitezzen».

Horrenbestez, ordenantzaren testu artikulatuan, lehenik eta behin, xedapen orokor multzo batek aditzera ematen ditu erregelamendu honen oinarri eta printzipio orokorrak. Jarraian, ebaluatu behar diren planak eta proiektuak zehazten dira; baita organo arduraduna ere. Ondoren, ebaluazioa egiteko erabiliko den metodologia zehazten da. Amaitzeko, hizkuntza-inpaktuaren ebaluazioari buruzko txostenaren onarpena eta bere eraginkortasuna azaltzen dira.

## I.- KAPITULUA: XEDAPEN OROKORRAK

### **1. artikulua. Helburuak eta aplikazio eremua.**

1.- Ordenantza honek ... udalerrian gauzatzen diren egitasmo eta jarduera pribatu zein publikoek bertako euskararen errealitate linguistikoan izan



ditzaketen balizko eraginak aurreikustea, identifikatzea eta ebaluatzea du helburu nagusia, beti ere udalak dituen eskumenen barruan.

2. Hortaz, euskararen aldeko konpromiso publikoa hartzeaz gain, ... Udalak nahi du gainerako erakunde publiko eta politikoei, erakunde pribatuei eta gizarte zibilak helburu bera abian jartzeko neurriak har ditzatela, eta horretarako lankidetzaz bilatu du udalerrian gauzatzen diren egitasmoak, euskararen eta euskal hiztun elkartearen egoerari kalterik eginez gero, horiek murrizteko eta aurrea hartzeko neurriak hartzeko xedearekin.

3. Xede horretan, elkar hartuta joan beharko dute ikuspegi teknikoak, politikoak, juridikoak eta sozialak udalerrian gauzatzen diren egitasmo publikoak eta jardura pribatu euskarari kalterik ez egitea lortzeko. Horregatik, ordenantza hau ...ko udal administrazioari eta berarekin loturaren bat duten edo bere esku dauden erakunde autonomo eta publikoei aplikatuko zaie, baita udalerrien egoera soziolinguistikoan eragina izan dezaketen udalerriaz gaindiko eremuko proiektuak eta planak onartzeko prozedurei ere. Udalarekin lankidetzaz hitzarmenak sinatzen dituzten edota udalaren dirulaguntzaren bat jaso duten erakunde pribatuei ere aplikatuko zaie.

## **2. artikulua. Eragin Linguistikoaren Ebaluazioa.**

Aurreko atalean aipatutako xedea betetzeko, araudi honek eragin linguistikoaren ebaluatzeko tresna erabiliko du. Ebaluazio honekin helburu hauek nahi dira lortu:

a) Udalerraren egoera soziolinguistikoan eragina izan dezaketen planak eta proiektuak egiteko eta onartzeko prozeduretan, eta haiei baimena edo



gaikuntza emateko prozeduretan, hizkuntza alderdiak eta euskararen erabileraren normalizazioa gehitzea.

b) Euskararen erabilera normalizatzeko onuragarrienak direna aukerak aztertzea eta kontuan hartzea.

c) Neurriak diseinatzea, euskararen erabileraren normalizazioaren gaineko ondorio kaltegarriak prebenitzeko, zuzentzeko eta, hala dagokionean, konpentsatzeko. Era berean, euskararen mesedetan egin daitezkeen plan eta proiektuak ebaluatzea eta zuzentzea, hala badagokio.

### **3.- artikulua. Printzipio orokorrak.**

#### 1.- Zeharkakotasuna.

Ordenantza honek, udalerrian hizkuntzari eragiten dioten egitasmoek ebaluatzeko tresna izaki, erabateko zeharkakotasuna du udal administrazioaren eta herriko egitasmoen gainean. Zentzu horretan, ordenantza honetan ezartzen diren irizpideak, hizkuntza politika izaki, udal egitasmo guztiei eragingo die, eta ondorioz, sail eta proiektu guztietara hedatu beharko da.

#### 2.- Zuhurtzia eta prebentzioa.

Udalerrian onartzen den edozein proiektu edo egitasmo publiko edo pribatuaren aurrean zuhurtziaz jokatu behar da, izan ere, euskararen gaineko nolako eragina izango lukeen zalantza izanez gero, gaia tentuz aztertzea eskatzen da. Eta, prebentzioz jokatzeko.

..... Udalak aukera onenak baliatuko ditu planak onartu edo proiektuei baimena edo gaikuntza ematen dienean, inpaktu kaltegarriak ahalik eta



txikienak izan daitezen, eta, behar izanez gero, inpaktu horiek konpentsatzeko.

Horregatik, hizkuntza-inpaktuaren ebaluazio-prozedura hasieratik sartuko da plana onartzeko edo proiektuari baimena edo gaikuntza emateko funtsezko prozeduran; eta, ebaluazioa amaituko da plana behin betiko onartu edo proiektua behin betiko baimendu aurretik.

### 3.- Lurralde-antolaketan hizkuntzen antolaketa aintzat hartzea.

Udalerrian kontuan izan beharko da, norbanakoak euskalduntzeaz gain, espazioak (geografikoak zein funtzionalak) euskalduntzea ezinbestekoa dela, hizkuntza normalizatuko bada.

Horretarako, Lurralde Antolamendurako Gidalerro edo arau orokorretatik hasi eta lurralde-antolaketako gainerako oinarrietan hizkuntzaren antolaketa aintzat hartu beharrekoa da.

### 4.- Arnasguneen zaintza eta hedapenerako tratamendu berezia.

Mendekotasun egoeran dago euskara, eta arnasguneak behar ditu, bere funtzio guztiak mugarik gabe, askatasunez, bete eta garatzeko lekuak. Hizkuntza batek, garatuko bada, bera nagusia den esparruak behar ditu; arnasgune horiek zaindu, sortu eta, ahal balitza, hedatu ezean, alferrik izango da, seguruenera, gainerako ahalegin oro. Horrenbestez, lehentasunezko trataera garbia eman beharko zaie euskararen arnasguneei.

Horregatik, ..... udalerrian arnasgunetzat jo diren eremuei (edo osoa) zaintza trataera berezia ematea bereziki zainduko da araudi honen bidez, eta gune hauen hedapena sustatuko da. Izan ere, hizkuntza gutxituaren etorkizunak derrigorrezkoak dituen guneak dira.

### 5.- Ebaluazioaren kalitate teknikoa.



Hizkuntza-inpaktuaren ebaluazioaren kalitate teknikoa ziurtatzea ezinbestekoa denez, berau burutzeko metodologia zehatz bat jarraitzea beharrezkoa da. Horretarako, sustatzaile pribatuek ..... Udalak beharrezkotzat jotzen dituen datu guztiak helarazi beharko dizkio. Gainera, honako puntu hauek barne bilduko ditu:

- Interesdunen eta herritarren parte-hartzea.
- Prebentzioa, zuzenketa eta, behar izanez gero, konpentsazio neurriak.
- Konfidentzialtasuna.

#### **4. artikulua. Eskumena.**

Udal ordenantza hau 2/2016 LEGEA, apirilaren 7koa, Euskadiko Toki Erakundeei buruzkoaren 7. artikulua eta hizkuntzari dagokion gainerako legeetan adierazitakoaren babesean garatzen da. Zehazki, 179/2019 Dekretuaren, azaroaren 19koa, Euskadiko toki-erakundeetan hizkuntza ofizialen erabilera instituzionala eta administratiboa normalizatzeari buruzkoaren babesean garatzen da.

## II.- KAPITULUA: PLANEN ETA PROIEKTUEN ERAGIN LINGUISTIKOAREN EBALUAZIOA EGITEA

#### **5. artikulua. Ebaluatu behar diren plan eta proiektuak.**

1.- ..... udalerrian behean zerrendatzen diren plan eta proiektuen hizkuntza-inpaktuaren ebaluazioa egin beharko da, bai eta horien funtsezko aldaketena ere, baldin eta euskararen erabileran eragina izango badute:



a) Planak:

- Hiri-antolamenduko plan orokorrak.
- Plangintza orokorra bateragarri egiteko plana.
- Sektorizatze-plana.
- Plangintzako arau subsidiarioak.
- Plan partzialak.
- Hiri-antolamenduko plan bereziak.
- Turismo-planak.

b) Proiektuak:

- Merkataritzagune handiak eraikitzekeo proiektuak.
- Industriaguneak eta teknologia-parkeak eraikitzekeo proiektuak.

2.- Ebaluaziotik salbuetsita egongo dira:

- Funtsezkoak ez diren aldaketak egiten direnean plan edo proiektuetan.
- Hizkuntza-inpakturik eragiten ez duten planak onartzean eta proiektuei baimena edo gaikuntza ematean.
- Aurrez hizkuntza-ebaluazioa izan duen plan batetik eratorritako proiektuak, berariaz oinarritziko proiektuak kontrakorik esaten ez duen kasuetan izan ezik.

3.- Aurreko apartatuan adierazitako kasuetako plan eta proiektuei onarpena, baimena edo gaikuntza emateko funtsezko espedienteetan, egoera horren berri jasotzen duen txosten bat erantsi beharko da.



## **6. artikulua: Udal eskumenekoak ez diren plan eta proiektuak**

Udal eskumenekoak ez diren eta beste administrazio publiko batzuk onartzekoak diren planen eta proiektuen hizkuntza-inpaktuari buruzko ebaluazioa ere egingo da.

Udalerrien egoera soziolinguistikoan eragina izan dezaketen udalerriz gaindiko proiektuak eta planak onartzeko prozeduran, planak eta proiektuak ebaluatzeko eskumena daukan ELE batzordeak haien hizkuntza-inpaktua aztertuko du.

Ondorioz, ebaluatuko diren egitasmo guztiak udal mailakoak izango dira, nahiz eta beste erakunde publikoek sustatu. Kasu horretan ere ... Udalak egin beharko du ebaluazioa, eta udalerriz gaindiko plana egitea dagokion erakundeari azterketaren ondorioen berri emango dio.

## **7. artikulua: Udalerri barruko arnaguneak izendatzea eta horien trataera berezia**

Printzipio orokorrak aintzat hartuta, arnaguneak zaindu nahi ditu ordenantza honek, eta horien hedapenerako tratamendu berezia eman.

Horrenbestez, eragin linguistikoaren ebaluazioa egiteko udalerrian arnagune izaera duten eremuak identifikatuko dira (... udalerriko eremuak 1. eranskinean jasoko dira). Udalerrian arnagunetzat jo diren eremuei zaintza trataera berezia ematea bereziki zainduko da. Eremu horietan plan eta proiektu guztien ebaluazioa egingo da eta arnagunea den eremu horrek udalerrriaren trataera bera izango du.





## **8. artikulua. ELE batzordea izendatzea**

Udalak plan eta proiektuen eragin linguistikoaren ebaluazioaz arduratuko den batzordea izendatuko du eta eskumena aitortuko dio udalerrian garatuko diren plan eta proiektuen hizkuntza-inpaktuaren gaineko erabakiak hartzeko.

ELE batzordea kide hauek osatuko dute, gutxienez:

- Euskara arloko zinegotzia
- Euskara teknikaria edo funtzio horiek betetzen dituena.
- Ebaluatzen den egitasmoaren inguruko arloko udal teknikaria.
- UEMAko teknikaria.

## **9. artikulua. ELE batzordearen egitekoa**

ELE batzordea arduratuko da udalerrian garatuko diren plan eta proiektuei eragin linguistikoaren ebaluazioa egingo zaiela ziurtatzeaz. Horretarako, udalerrian abian jarri nahi diren plan eta proiektuen jarraipena egingo du. Horien berri izan bezain laster, plan edo proiektua garatzen hasi aurretik, organo sustatzaileari aholkatuko dio euskararentzat mesedegarriak diren funtsezko alderdiak zeintzuk diren, eta horiek jasotzeko gomendioa egingo dio.

Behin plan edo proiektuaren aurrerakin txostena dagoenean, ELE batzordeak Irismen dokumentua egingo du eta erabakiko du hizkuntza-inpaktuaren azterlana egin behar ote den.

Hizkuntza-inpaktuaren azterlana egin behar dela ondorioztatuz gero, ELE batzordeak erabakiko du azterlana nork idatziko duen: udal teknikariak, ELEn aditua den pertsona kontratatuko duen, edo sustatzailea enpresa pribatua bada, enpresari eskatuko zaion egiteko.



Dena dela, inpaktuaren azterlanaren azken erabakia udalarena izango da. Horregatik, inpaktuaren azterlana egiteko metodologiak eskatzen dituen galdetegiak betetzeaz, neurri zuzentzaileak proposatzeaz eta azken erabakiak hartzeaz ELE batzordea arduratuko da.

ELE batzordeak inpaktuaren azterlana kanpoko enpresa batek egina jasoko balu, azterlana oinarri hartuta, erabakiko du plana edo proiektua bideragarria den bere horretan, beste neurri zuzentzaile batzuk proposatu behar diren edo kontrako txostena egingo duen.

## **10. artikulua. Prozedura.**

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzako Herri Administrazioetan Hizkuntza Normalizatzeko Zuzendaritzak eta Udalerri Euskaldunen Mankomunitateak (UEMA) Eragin Linguistikoaren Ebaluaziorako (ELE) adostu duten metodologia erabiliko da eta ezin izango da beste metodologiarik erabili. Honako prozedura izango du:

### **10.1. Hizkuntza-azterlanaren irismena zehaztea.**

Lehenengo pausoa Irismen dokumentua egitea izango da. Plan edo proiektu batek udaletxean edo aztertzen den eremuan euskararen erabileran eraginik eduki dezakeen aztertzerakoan, adierazle hauek kontuan hartuko dira:

- a) Aldaketak, udalerriko biztanle kopuruan.
- b) Aldaketak, udalerrira bisitatzen dutenen kopuruan.
- c) Bestelako eraginak, udalerraren egoera soziolinguistikoan.

Adierazleok aztertu ondoren, udal zerbitzu teknikoek hizkuntza-azterlanaren irismenari buruzko txostena bidaliko diote plan edo proiektuari funtsezko onarpena emateko eskumena duen udal organo



eskudunari.

Baldin plan edo proiektuaren irismenari buruzko proposamenak ondorioztatzen badu ez dagoela hizkuntza-inpaktu esanguratsurik, hizkuntza-inpaktuaren azterlanik ez egiteko gomendatuko du. Aitzitik, hizkuntza-inpaktu esanguratsua dagoela ondorioztatzen badu, beharrezkotzat joko du hizkuntza-inpaktuaren azterlana egitea.

## **10.2. Hizkuntza-inpaktuaren azterlana egitea.**

Honako puntuak jaso beharko ditu azterlanak:

a) Planaren edo proiektuaren azalpen orokorra eta garatzeko beharko den denboraren gaineko aurreikuspena.

b) Hizkuntza-inpaktuaren intentsitatearen kalkulua. Inpaktuaren intentsitatea kalkulatzeko, ELE galdetegia beteko da. Aldagai hauek hartuko dira kontuan:

- Bizitza sozialaren eta kulturalaren gaineko inpaktua.
- Biztanleen edo bisitarien hizkuntza-gaitasuna.
- Biztanleen edo bisitarien hizkuntza-erabilera.
- Jardueraren edo zerbitzuaren eremuko komunikazioa.
- Eraginpeko eremuko hizkuntza-paisaia.
- Jardueraren edo zerbitzuaren eremuko hizkuntza-eskaintza.

c) Funtsezko alderdiei buruzko azterketa egiteko galdetegia beteko da.

Honako eremu hauek kontuan hartu behar dira:

- Plan edo proiektu motaren ezaugarriei buruzkoak.
- Planaren edo proiektuaren denbora- eta espazio-dimentsioak.
- Kokapenari buruzkoak.



- Planteatu diren hizkuntza-erabilerari buruzko irizpideen gainekoak.
- d) Konpentsazio-neurriak.
- e) Neurri zuzentzaileak.

### **10.3. Informazioa jendurrean jartzea, interesdunei kontsulta egitea eta entzunaldia.**

1. - Hizkuntza-inpaktuaren azterlana behin betiko onartu aurretik jendurrean jartzeko izapidea egingo da, hasierako onespenearekin batera.

2. - Gainera, jendurreko informazioaren izapidea egiten den bitartean, udalak kontsulta egingo die Eusko Jaurlaritzako hizkuntza normalizazioaren arloko eskumena duen sailari, UEMari eta interesdunei. Kontsultak, jakinarazpen baten bidez egingo dira, honako informazio hau gutxienez adierazita:

a) Hizkuntza-inpaktuari buruzko azterlana, edo non kontsultatu daitekeen.

b) Txostenak eta ebaluazioak ze organori bidali behar zaizkion.

c) Planaren edo proiektuaren gaineko informazio garrantzitsua eskuratzeko modua.

3. - Eusko Jaurlaritzan hizkuntza normalizazioaren arloko eskumena duen sailak hogeita hamar egun balioduneko epea edukiko du, udalak egindako hizkuntza-azterlanaren gainean txosten bat egiteko. Era berean, interesdunek epe bera izango dute alegazioak formulatzeko. Epea zenbatzen hasiko da jakinarazpena hartzen den hurrengo egunetik aurrera.



4. - Hamar egun balioduneko epean entzunaldia emango zaio sustatzaileari, baldin pertsona pribatua bada, eta interesdunei ere bai, horrelakorik badago. Epea zenbatzen hasiko da informazioa jendaurrean jartzeko eta Eusko Jaurlaritzan hizkuntza normalizazioaren arloko eskumena duen sailari eta interesdunei kontsultak egiteko izapidea amaitzen denetik aurrera. Jasotako txostenak eta alegazioak bidaliko dizkio ELE batzordeari, jakinaren gainean egon dadin.

#### **10.4. Hizkuntza-inpaktuaren ebaluazioari buruzko txostena.**

1.- Hizkuntza-inpaktuaren ebaluazioari buruzko txostenean datu hauek, gutxienez, bilduko dira:

- a) Planaren edo proiektuaren sustatzailea edo funtsezko organoa zehaztea, eta planaren edo proiektuaren deskribapena.
- b) Informazioa jendaurrean jartzeko eta Eusko Jaurlaritzan hizkuntza normalizazioaren arloko eskumena duen sailari, UEMari eta interesdunei kontsultak egiteko izapideen emaitzen laburpena, bai eta horiek kontuan hartzeko moduaren azalpena ere.
- c) Hizkuntza-inpaktuaren ebaluazioaz arduratzen den udal organoak egin duen azterketa teknikoaren laburpena.
- d) Euskararen erabileraren normalizazioaren gaineko ondorio kaltegarriak prebenitzeko, zuzentzeko eta, hala dagokionean, konpentsatzeko ezarri beharko lirartekeen baldintzak eta neurriak, beharrezkoa denean.
- e) Jarraipena egiteko sistema eta, beharrezkoa bada, jarraipen batzordea.

2.- Hizkuntza-inpaktuaren ebaluazioari buruzko txostena egiteko epea hilabetekoa da, kontsultarako epeak amaitutakoan zenbatzen hasita. Eta,



plana edo proiektua onartzeko funtsezko prozedura amaitu aurretik, hizkuntza-inpaktuaren ebaluazioari buruzko txostena erantsi beharko da.

3.- Honakoak izango dira har daitezkeen erabakiak:

- Aldeko txostena.
- Aldeko txostena, neurri zuzentzaileekin.
- Kontrako txostena, proiektua aldatzeko edo egokitzeko eskatuz.

4.- Beste metodologia eta prozedura batekin burututako ebaluazio guztiak deusezak izango dira.

### **11. Artikulua. Neurri zuzentzaileak edo aringarriak.**

Ezarritako ebaluazioaren emaitzaren arabera, beharrezkoa balitz, ondoren zerrendatzen diren neurri zuzentzaileak hartzeko aukera izango da, besteak beste:

1.- Proiektuaren edo jardueraren izaerari lotutako neurri zuzentzaileak:

- a) Harremanak erdigunean jarriko dituen neurriak: bertako herritarrekin harremanak garatzeko gune komunitarioak indartzea, etxebizitzaren sarbidea oinezkoen espazioetatik egitea, familia bakarreko edo dorre itxurako etxebizitzak beharrez, ingurura egokituak egitea eta abar.
- b) Zerbitzuen kudeaketa pribatua izanez gero, udalarekin hitzarmenak egitea aurreikustea.
- c) Kultura, kirola eta hezkuntza zerbitzuak eskaintzen dituen eraikinaren kudeaketa publikoa izatea.



- d) Herritarren talde guztientzako lan aukerak sustatzea.
- e) Ekonomia aniztasun handiago egotea bultzatzea.
- f) Erabiliko diren irudi leloak bertako ezaugarriei lotutakoak izatea sustatzea.
- g) Ekimenak bertako kultur sorkuntza sustatzea helburuen artean.
- h) Antzeko beste neurri batzuk.

2.- Proiektuaren edo jardueraren dimentsioari lotutako neurri zuzentzaileak:

- a) Proiektuaren tamaina murriztea, esate baterako, etxebizitzaren kasuan, auzo/herri/eskualdearen beharretara neurriratzea hazkundera.
- b) Proiektuaren iraupena denboran luzatzea (adibidez, etxebizitza guztiak aldi berean egin beharrean, fase ezberdinetan egitea).
- c) Tokiko beharretara egokitutako ekipamenduak aurreikustea.
- d) Ekimenak garrantzi naturala, historikoa edo kulturala duten lekuak babestea edo hobestea.
- f) Espazio publiko irekiak eremu askotan dispersatzea aurreikustea.
- g) Tokiko beharretara neurriratutako lanpostuak sustatzea.
- h) Bisitari kopuru jasangarria sustatzea: turismoa hizkuntz gutxituetako herrialdeetan sustatzea...
- i) Antzeko beste neurri batzuk.

3.- Proiektuaren edo jardueraren lekukotzeari lotutako neurri zuzentzaileak:

- a) Ezagutzan eragin kaltegarri txikiagoa izan dezan lekualdatzea.
- b) Proiektu guztia leku berean garatu ordez, eremu desberdinetan



dispertsatzea.

- c) Erabileran eragin kaltegarri txikiagoa izan dezan lekualdatzea.
- d) Proiektu guztia leku berean garatu ordez, eremu desberdinetan dispertsatzea.
- e) Espazio publiko irekiak beste instalazio batzuk inguruan izatea, adibidez, dendak, liburutegia, kultur etxea, ikastetxeak eta gizarte kohesioa sustatzeko komunitate-zentroak.
- f) Enpresa berriak eraikiko badira euskararen hauskortasun txikiko guneetara bideratu.
- g) Jarduerak bisitariak hauskortasun txikiko guneetan jasotzea aurreikustea
- h) Antzeko beste neurri batzuk.

#### 4.- Hizkuntza irizpideei lotutako neurri zuzentzaileak:

- a) Etxebizitza eskuratzeko bertakoei lehentasuna ematea.
- b) Herriko langileei lehentasuna ematea.
- c) Proiektuaren iragarkiak tokiko eta euskarazko hedabideetan egitea lehenetsiko da.
- d) Kontrataturako langileak euskaldunak izatea.
- e) Hizkuntza erabilerarako irizpideak finkatzea, euskarari lehentasuna emanez.
- f) Euskara plana edo ziurtagiria duten hornitzaileak lehenestea.
- g) Pasaia linguistikorako irizpideak finkatzea, euskarari lehentasuna emanez eta erdarak beharrezkoa den kasuetan soilik erabiliz.
- h) Bertako toponimia erabiltzea.
- i) Komunikazio irizpideak finkatzea, euskarari lehentasuna emanez.





- j) Euskarazko eskaintza edo eskaintza elebiduna bermatzea.
- k) Antzeko beste neurri batzuk.

5.- Aurreko ataletako neurri zuzentzaileez gain, aurkeztutako proiektu edo jardueren gainean ezarri daitezkeen neurri osagarri eta aringarriak:

- a) Herritarren ahalduntze linguistikoa eta formazioa lantzea.
- b) Aisialdiko (kirol eta kultur) eskaintza osoa euskaraz garatzea.
- c) Etorri berrientzat integraziorako neurriak (hezkuntza...) eta planak garatzea.
- d) Euskara ikasteko erraztasunak ematea herritarrei.
- e) Etorri berrien euskalduntzea eta beharrezko errefortzua bermatzea.
- f) Harrera-planak egitea.
- g) Mintzapraktika programa garatzea.
- h) Sentsibilizazio /motibazio kanpainak egitea.
- i) Euskarazko doako zerbitzua (itzulpenak, faktura takoak, ohartxoak...) eskaintzea.
- j) Irizpideak betetzen ez direnerako isunak jartzea.
- k) Antzeko beste neurri batzuk.

## **12. artikulua. Dokumentazioa.**

Ebaluazioaren prozeduraren amaieran, gutxienez, honako dokumentazioa jasoko da:

- Irismen dokumentua.
- Hizkuntza-inpaktuaren azterlana.
- Hizkuntza-inpaktuaren ebaluazioaren txostena.